

# Ekonomia solidarioa eraikitzen feminismitik eta gaitasunen ikuspegitik

Mertxe LARRAÑAGA

Irakasle titularra (UPV/EHU)

Yolanda JUBETO

Irakasle agregatua (UPV/EHU)

Sarrera data: 2014/03/17

Onarpen data: 2014/05/06

---

**Aurkibidea:** 1. Sarrera. 2. Ekonomia Feministaren ildo nagusiak. 3. Gaitasunen ikuspegia eta ekonomia feministaren arteko lotuneak. 4. Ekonomia Solidarioa eraikitzen Ekonomia Feministatik eta Gaitasunen Ikuspegitik. 4.1. Ekonomia solidarioaren oinarrien irakurketa Ekonomia feministatik eta Gaitasunen ikuspegitik. 4.2. Ekonomia Solidarioa eta oinarritzko gaitasunen indartzea. 5. Azken hausnarketak. 6. Bibliografia.

---

## **Laburpena:**

Artikulu honen helburua, ekonomia solidarioaren eta feministaren inguruan aurre-rapen kontzeptualak lortzea da, eta horretarako hiru ikuspegi teorikoen arteko loturetan oinarrituko gara: ekonomia solidarioa, ekonomia feminista eta gaitasunen ikuspegia. Hirurek puntu asko dituzte komunean, izan ere, merkatu-logika hutSEN aurrean hiru teoriak jartzen baitute analisiaren erdigunean bizitzaren iraunkortasuna eta kalitatea.

Ekonomia Solidarioaren eta Ekonomia Feministaren arteko loturak aztertzeko Bizitzaren Iraunkortasunaren paradigmatik abiatuko gara. Ondoren, Ekonomia Solidarioarekin zerikusia izan zezaketen beste korrante teoriko batzuk kontuan hartuko ditugu, konkretuki Giza Garapenaren Ikuspegia edo Gaitasunen Ikuspegia.

Horretarako lau gai nagusi jorratuko ditugu. Lehenengo atalean Ekonomia Feministaren gakoak laburbilduko ditugu. Ondoren Ekonomia Feministaren eta Gaitasunen Ikuspegiaren arteko puntu komunak bilatuko ditugu. Hirugarren atalean bi planteamendu hauek Ekonomia Solidarioarekin lotuko ditugu, eta lotura honela egingo dugu: lehenik eta behin Ekonomia Solidarioaren oinarrien irakurketa Ekonomia Feminista eta Gaitasunen Ikuspegitik burutuko dugu eta gero Ekonomia Solidarioak oinarritzko gaitasunak indartzeko ahalmena aztertuko dugu. Artikulua, eztabaidarako balioko duten gogoeta batzuekin amaituko dugu.

**Hitz gakoak:**

Ekonomia Feminista, Ekonomia Solidarioa, gizarte-ekonomia, gaitasunak, iraunkortasuna.

**Resumen:**

El objeto del presente artículo es lograr una serie de avances conceptuales relativos a la economía solidaria y feminista. Para ello, nos basaremos en las interrelaciones de tres perspectivas teóricas: la perspectiva de la economía solidaria, la de la economía feminista y la perspectiva de las capacidades. Esas tres perspectivas tienen muchos puntos en común: frente a la lógica pura y dura del mercado, las tres sitúan en el centro del debate la sostenibilidad y la calidad de la vida.

Para analizar las interrelaciones entre la Economía Solidaria y la Economía Feminista, tomaremos como punto de partida el paradigma de la sostenibilidad. Posteriormente, tendremos en cuenta varias corrientes teóricas que pudieron haber incidido en la Economía Solidaria, en concreto la perspectiva del Desarrollo Humano y la perspectiva de las Capacidades.

Para ello, abordaremos cuatro temas básicos. En primer lugar, haremos una síntesis de las claves de la Economía Feminista. A continuación, mostraremos los puntos que comparten tanto la perspectiva de la Economía Feminista como la de las Capacidades. En el tercer apartado, esos dos planteamientos los relacionaremos con la Economía Solidaria, de la siguiente manera: haremos una lectura de las bases de la Economía Solidaria a través de las perspectivas de la Economía Feminista y de la de las Capacidades y, posteriormente, analizaremos la posibilidad de la que dispone la Economía Solidaria para reforzar las capacidades básicas. Finalizaremos el artículo con una serie de reflexiones que servirán para un debate.

**Palabras clave:**

Economía Feminista, Economía Solidaria, Economía Social, Habilidades, Sostenibilidad.

**Abstract:**

The main aim of this article is to highlight the links between solidarity economics and feminist economics in order to summarize the main common features of these both alternative economic approaches and their contribution to the construction of a society based on social equity. In this attempt some of the main elements that define the capability approach are also introduced as we find it useful to make progress towards a social organization based on social and economic justice. Besides, these three approaches locate in the centre of their analysis life sustainability which is a concept that tries to overcome the limits of an economy based exclusively on profitable market relationships.

This article, thus, will be structured as follows. In the first part, some drivers of Feminist Economics will be described in order to summarize its main proposals. In the second part, the main links between Feminist Economics and the Capability Approach will be underlined. In the third part of the article the main principles of the Solidarity Economy will be summarized and linked with the previous described approaches. Crossing all these elements some characteristics of economic debates based on well-being of women and men of a community will be emphasised, taking into account that the aim of economic analysis should be to promote living conditions of people in a broad SENSE and their capabilities to live the life they consider valuable and meaningful, instead of the profits of the big corporations. The article will finish summarizing some key points in order to contribute to the debate about the basic elements of an economy based on social equity.

**Keywords:**

Feminist economics, solidarity economics, social economics, capabilities, sustainability.

**JEL ECONLIT classification**

B54 Feminist Economics  
 B59 Current Heterodox Approaches: Other  
 D13 Household Production and Intrahousehold Allocation  
 D64 Altruism; Philanthropy  
 I31 General Welfare; Well-Being  
 P13 Cooperative Enterprises

## 1. Sarrera

Hainbat pertsonak zein kolektibo kritikok gaur eguneko egitura ekonomiko globalizatu eta neoliberalaren aurrean alternatiba sozial eta ekonomiko berritzaileak eraikitzearen alde egin dute. Horrela munduko pertsona guztien ongizatea bermatuko litzateke belaunaldi berrien aukerak oztopatu gabe. Alternatiben bilaketa honetan, Ekonomia Solidarioak, merkatu kapitalista lehiakorretik urruntzen diren ekintza edo sustapen sozioekonomiko ezberdinak ahalbidetzen ditu. Horrela, Ekonomia Solidarioan oinarritzen diren erakunde edo ekintzaile ezberdinak elkarlanean, altruismoan, solidaritatean eta lankidetzan oinarritzen dira eta gizabanakoa lorpen edo irabazi ekonomikoen gaintik ipintzen dute. Balore hauek, ondorioz, eraldaketa soziala bermatzen duten oinarrian daude, bizitzaren iraunkortasunaren paradigmen azpian. Azken finean, Ekonomia Solidarioak ikuspegi berri bat eskaintzen du eta baita eraldaketarako balioak eta praktikak ere.

Testu honetan Ekonomia Solidarioaren eta Ekonomia Feministaren arteko loturak aztertuko ditugu eta hau egiteko Bizitzaren Iraunkortasunaren paradigma errepasatuko dugu. Ondoren, Ekonomia Solidarioarekin zerikusia izan zezaketen beste korrante teoriko batzuk kontuan hartuko ditugu, konkretuki Giza Garapenaren Ikuspegia edo Gaitasunen Ikuspegia.

Horrela, artikulua helburua, ekonomia solidarioaren eta feministaren inguruan aurrerapen kontzeptualak lortzea da, eta horretarako hiru ikuspegi teorikoen arteko loturetan oinarrituko gara: ekonomia solidarioa, ekonomia feminista eta gaitasunen ikuspegia. Hirurek puntu asko dituzte komunean, izan ere, logika merkantilista hutSEN aurrean hiru teoriak jarzen baitute analisiaren erdigunean bizitzaren iraunkortasuna eta kalitatea.

Horretarako lau gai nagusi jorratuko ditugu. Lehenengo atalean Ekonomia Feministaren gakoak laburbilduko ditugu. Ondoren Ekonomia Feministaren eta Gaitasunen Ikuspegiaren arteko puntu komunak bilatuko ditugu. Hirugarren atalean bi planteamendu hauek Ekonomia Solidarioarekin lotuko ditugu, eta lotura honela egingo dugu: lehenik eta behin Ekonomia Solidarioaren oinarrien irakurketa Ekonomia Feminista eta Gaitasunen Ikuspegitik burutuko dugu eta gero Ekonomia Solidarioak oinarritzko gaitasunak indartzeko ahalmena aztertuko dugu. Artikulua, eztabaidarako balioko duten gogoeta batzuekin amaituko dugu.

## 2. Ekonomia Feministaren ildo nagusiak

Gaur egun, ekonomia feminista deitzen duguna xx. mendeko bigarren erdialdean hasi zen indartzen, bereziki mendebaldean. Dena den, bere jatorriak pentsamendu ekonomikoarekin bat egiten du, teoria ekonomikoak sortu zirenean haiei egindako kritiken artean jaio baitzen eta horren baitan pentsalari feministen ekarpenak garrantzitsuak izan ziren nahiz eta isla gutxi izan pentsamendu hegemonikoan.

Izenak adierazten duen moduan, ekonomia feminista feminismoan sus-traitzen da eta aldi berean ekonomiak dituen kezka abiapuntutzat hartzen ditu. Bestalde, akademian sorturiko hausnarketa feministetan oinarritzen da eta errealitatearen ezagupen sakona bilatzen duenez beste irakaspenetik datozen kontzeptuak kontuan hartzen ditu, hots, filosofiatik, antropologiatik, psikologiatik, zuzenbidetik etabar.

Nahiz eta ohikoa izan ekonomia feministaz hitz egiterakoan singularrez mintzatzea, esan behar da ez dela pentsamendu korrante bakarra ez baitago feminismo bakarra ezta ekonomiaren ikuspegi bakarra ere.

Ekonomialari feministon kezka nagusien abiapuntuen artean munduan dauden eta handitzen ari diren ezberdintasunak daude, bereziki, emakumeok pairatzen dugun ezberdintasun eta bazterkeriaren adierazpide guz-

tiak, bai eremu sozio-ekonomikoan (etxeko ekoizpen prozesuetan, zainketa lanetan edota merkatuko lanetan), bai eremu politikoan (erabaki politiko-koen prozesuetan izandako parte-hartze maila eskasagatik eta abar).

Hortaz, ekonomia feministarentzat genero harremanetan sorturiko ezberdintasunak lehen mailako egiturazko aldagaiak dira, gizarteko prozesu guztiei eragiten baitiete, eta sistema sozioekonomikoa oro har antolatzen dutelako, maila guztietako dinamiketan eragina izanda, nola mikro-mailan, hala meso-mailan eta makro-mailan.

Mikro-mailan, genero harreman hierarkikoak banakako, etxeetako eta enpresetako bertako prozesuei eragiten die. Arreta etxeetan jarririk, bertan sexuen arteko lanaren banaketak oso desorekatua jarraitzen du. Horrez gain, etxeak lankidetzako eta gatazkako tokiak direla gero eta argiago dago. Lankidetzaren familiaren ongizaterako ekarpenak egiteko garaian gertatzen da. Jarduera askok laguntzen dute etxearen oparotasunean (diru-sarrerak, laboreak, etxeko lanak ...). Gatazka, alabaina, sarritan gertatzen da denboren, aktiboen eta jardueren banaketari buruz erabakiak hartzerakoan. Horrela, azkenean hartzen diren erabakiak etxeko kideen negoziazio-boterearen isla dira (SEN, A, 1990).

Aitzitik, ohiko ekonomia-analisiak familia gune harmoniatsutat eta gatazkarik gabekotzat aurkezten dute. Ezagunen artean, Familiaren ekonomia berria —dagoeneko ez hain berria— dugu; Gary S. Becker Nobel saridunak garatu zuena eta ekonomia feministak asko kritikatu duena (PUJOL, 1991; CARRASCO, 1991). «Beckertar familian» gehien kritikatu diren elementuetako bat baliagarritasun-funtzioa edo familia-ongizateko funtzioa izan da. Banakako funtzioak familia-kide guztien interesei zegokien funtzio bakar bat eratzeko batu ezin izan zituenez, Beckerrek altruismoaren teorema proposatu zuen; haren arabera, «familiaburu» altruistak bere baliagarritasun-funtzioan gainerako kideen ongizate-funtzioak hartzen ditu. Planteamendu horrek, familia instituzio harmoniatsutat eta interes-gatazkarik gabekotzat hartzeaz gain, lagun bakarrak lehentasun kolektiboen edo familia-unitatearen lehentasunen ordena erabaki dezan onartuko luke; hartara, hari «diktadore onbera» deitu diote. Bestela esanda, diktadore onberaren irudia familia-antolakuntzaren era patriarkal nagusiaren irudikapena eta onarpena baino ez litzateke.

Diktadore onbera hori eta familiaren jokabide hori kontraesanean daude ekonomia neoklasikoaren oinarritzko printzipio batekin, indibidualismo metodologikoaren printzipioarekin, alegia. Diktadore onberak ez du betetzen «homo economicus» delakoaren funtsezko ezaugarri bat, hots, norberekoitasuna. Beckertar familian, norberekoitasuna kide batzuen kasuan baino ez da ikusten, beste batzuk eskuzabaltzat hartzen dira eta. Diktadore onbera etxean baino ez litzateke izango horrelakoa, eta etxetik kanpo, eraldatze-kasu bitxi baten bidez —Dr. Jekyll eta Mr. Hyde go-

gorarazteko moduan— onberatasuna utzi, eta merkataritzako gune publikoan bere interesaren alde bakar-bakarrik jokatu luke. Hala, bada, «familia altruista» delakoak, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak legitimatzeko ez ezik, kasu hori merkatuan erabiltzea ezinezkoa dela justifikatzeko ere balio du. Horrela, kontzeptuzko dualismoa indartzen da merkatuaren (bertan, nork bere interesen alde jokatzen dute guztiak) eta familiaren (bertan, harmonia eta arau altruistak dira nagusi) artean.

Meso-mailan, generoak lan-merkatuen funtzionamenduan du eragina, sexuaren arabera bananduta egonik, enplegurako eskaintzen dituzten aukerak eta baldintzak bestelakoak eta desberdinak dira eta. Sexuaren araberrako lan-banaketak gizonen eta emakumeen denboraren erabilerarako gizartean ezarritako eskubide- eta betebeharrak sare konplexu bat dakar berekin, eta ongizatearen estatuaren funtzionamendua eta prestazioak, besteak beste, baldintzatzen ditu. Tokiko eta eskualdeko administrazioen politikek ere, sarri, sexuaren araberrako lan-banaketak indartzen duten joera horiek berak jasotzen dituzte.

Makro-mailan, alde batetik, agregatu makroekonomiko handiak, Barne Produktu Gordinak (BPG) kasu, ekonomiari buruzko oso ikusmolde estu eta maskulino bati dagozkio, eta, beste alde batetik, makro-mailako politika handiak, hala nola, zerga-politikak, truke-tasei buruzko politikak, merkataritza-politikak ez dira neutralak generoaren aldetik. Eta ez dira halakoak azkenean jendearen bizitzan eragiten eta baldintzatzen dutelako: emakumeen eta gizonen baldintzak eta estatusak desberdinak direnez, politikek ere eragin desberdina izan dezakete. Baina, makro-mailan harturiko erabakiak mikro-mailan eragina dutelarik, mikro-mailan harturikoak ere azkenean eragina izan dezakete, ordea, makro-mailan.

Sarritan, hainbat esparrutan hartzen diren erabakien atzean generoko rola eta estereotipoak inplizituki onartzen direla ikusten da, funtsezko garrantzia izaten jarraitzen dute eta. Estereotipoek emakumeak lan batzuetarako gaiagotzat eta beste batzuetarako kostu handiagotzat erakusten dituzte, arazo pribatuez interesatuagotzat eta ez hainbeste arazo publikoez, bestelako lan eta lidergo-estiloak dituztela, eta abar. Estereotipoen garrantzia eta indarra ez da huskeria. Estereotipo horiek pertsonen kontroletik kanpo daude, eta eragina izaten dute haiengan, eta gizarteko gainerako kideekin duten elkarreraginaren baldintzak ezarri ohi dituzte. Horrek desberdintasunei irauarazten laguntzen die. Estereotipoen iraukortasuna eta haiek desagerrarazteko zailtasuna daude Europako Batzordeak (2007) estereotipoen aurkako borrokaren inguruan hartutako neurriaren oinarrian, besteak beste. Borroka hori funtsezko ardatz gisa hartu da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeko.

Errealitatearen azterketa integral batetik abiatzen denez, ekonomia feministak ekonomiaren definizio zabala aldarrikatzen du, merkatu harre-

manetatik haratago doana, hain zuen, eta giza-harremanen elkarmenpeko-tasun izaera onartzen duena. Horrela, feminismoaren ikuspegitik, zientzia ekonomikoaren ustezko helburua «gizakiok geure biziraupenerako hornikuntza nola antolatzen dugun aztertzea izan beharko litzateke. Beraz, hornidura ekonomikoa eta bizitzaren sostengua aztergai nagusiak dira, gizarte-harremanetarako instituzio ezberdinak kontuan hartuz: merkatua, familia edo gobernuaren ekintza» (NELSON, 1996).

Halaber, ekonomia feministaren ardatz nagusien artean bizitzaren iraunkortasuna dago, hori izan behar baita jarduera ekonomikoen xede nagusia. Hortaz, bizitzaren ugalketa prozesu zabala azterketa ekonomikoaren erdigunean kokatu behar dugu, baliabide materialak zein zaintza-lanak edota estimu eta adiskidetasuna eskatzen dituen (PICCHIO 2001; CARRASCO 2009). Prozesu horretan sartu behar ditugu giza-beharrizanen asetzea, bai materialak zein afektiboak, ingurune jasangarri batean, bai arlo sozialean bai ingurumenari dagokionez. Horrek eskatzen du aztertzea bai giza-harremanen kalitatearen maila bai planeta honetan utziko ditugun hurrengo belaunaldientzako bizi-baldintzak ere. Bizitzaren iraunkortasunaren kontzeptua kapital metaketatik eta irabazi ekonomikoetatik aldentzen da, eta nahiz eta normalean gizakion bizitzaz jardun, bizitza mota guztietara zabaldu egiten da. Azken finean, bizitzaren iraunkortasuna bilatzea ugalketa, ekoizpen, eta hartu-emanak antolatzean datza, bizitzaren mota guztiak gara daitezen eta baldintza onenetan iraun dezaten, justizian eta aukera berdintasunean oinarrituta.

Bizi-baldintza duinak sustatzen dituzten harreman ekonomiko zabalak eta integralak bilatzeak ekonomiaren ikuspegi androzentrikoaren kritika zorrotzak bultzatu ditu eta zalantzan jarri ditu oinarritzko kategoria analitikoak, hala nola lanaren, jarduera ekonomikoaren zein ongizatearen edo garapenaren kontzeptuak, hain zuzen. Horrela, adibidez, lanaren kontzeptuaren mugak apurtzean, enpleguarekin erabat loturik zegoena, (FOLBRÉ 1995; HIMMELWEIT 1995; CARRASCO 1999), aukera eskaini digu sistema ekonomikoaren oinarrian kokaturik dauden jarduera multzo zabal bat ikustarazteko, aurretik ahaztuak edo ekonomiatik at kokaturik zeudenak. Hortaz, lana enplegutik haratago dagoen kontzeptu bat dela planteatzerakoan, hots, ez dela soldatapeko lana edo lan autonomoetara mugatzen, baizik eta soldatarik gabeko lanak ere barnebiltzen dituela, ohiko ekonomiaren mugak apurtu ditu eta azterketa ekonomikoak merkatutik haratago kokatzeko aukera eskaini du. Horrela, lanaren kontzeptu barruan sartuko dira pertsonen beharrizanak asetzeko ondasun eta zerbitzu guztien ekoizpenerako egindako jarduerak. Eta horrek apurtzen du baita ere munduaren ikuspegi dikotomikoa (aktibitatea/aktibitate eza; balioa/baliorik gabekoa; jarduera ekonomikoak/jarduera ez-ekonomikoak; eremu publikoa/eremu pribatua; ...) merkatu harremanen eremuaren eta merkatu harremanetatik kanpo dagoen

eremuen arteko lotuneak ikusaraziz (DALLA COSTA, 2009). Halaber, norberekoen zein ongizate kolektiboaren azterketan gizakion ekarpenak aztertzerakoan denbora sartuko da aldagai garrantzitsu moduan.

Lanaren kontzeptualizazio zabal honek etxeetako «kutxa beltza» zabaldu du eta aukera eskaini du azterketa anitzen bidez bere baitan egiten diren jarduera produktibo zein afektiboaren multzoa ezagutzeko. Lan ezberdin horiek gizakion bizi-iraupenerako funtsezko oinarria osatzen dute eta horrekin batera pertsonen bizi-kalitatearen oinarri garrantzitsu bat ere bada. Hala ere, ezin dugu ahaztu botere harremanak egon badaudela eta baita gatazkak gainditzeko estrategiak ere (SEN, 1990). Zentzu horretan, etxeetako esparruan sortzen dira gatazka larrienak emakumeentzat.

Etxeetako barne dinamikak aztertuz ondorioztatu da etxeak direla sarritan sistema ekonomikoa doitu egiten dituztenak, bertan doikuntza asko egiten baitira. Doikuntza nabarmenenak krisi garaian gertatzen dira eta ohikoa da emakumeen aurkako doikuntzak izatea. Hortaz, gizarte-antolakuntzaz mintzatzen garenean ohartzen gara ekoizpen- eta ugalketa-sistemen artean tentsio sakonak daudela eta zenbait garaietan horiek areagotzen direla. Beraz, ezinbestekoa da horrelako gatazkak kontuan hartzea gizarte-sistemaren barruko funtzionamenduaren logiken ezaugarriak bere osotasunean aztertu nahi baditugu.

Hausnarketa horien ondorioz, adostu da zientzia ekonomiko neoklasikoaren muinean dagoen funtsezko eragile ekonomikoaren estereotipoa, hau da, homo economicus, arrazoizko subjektutzat hartzen duena, norberekoa, independentea, buruaskikoa, osasuntsua, ez oso gazte ezta oso heldua ere, beti aktiboa merkatuan, eta bere ongizatea etekin ekonomikoaren bidez soilik bilatzen duena, ez dela erreala. Prototipo horietatik urrun, guztiok beste pertsonen beharra dugu, gure bizitzaren oinarrian elkarmenpekotasuna baitago eta zaintza jarduerak zein elkarren arteko laguntza behar ditugu bizitza duina bizi ahal izateko. Dena den, gure bizitzaren zikloaren arabera, zaintza lanak areagotu egiten dira edo murriztu egiten dira. Argi dago, batzuetan zaintza lanen beharra handitu egiten dela, bereziki mendekotasun nabari bat dugunean edota aniztasun funtzionala dugunean. Mendeko pertsonen zaintza lanak giza-inbertsio handia eskatzen du, bereziki laguntza jardueretan. Eta ekimen horien zatirik handiena emakumeek egiten jarraitzen duten bitartean denbora hori balioztatu gabe, edota soldatarik edo beste ordainketarik gabe, maitasunaren ondorio hutsa balitz bezala, generoaren araberako ezberdintasunen sustrai garrantzitsu bat izaten jarraituko du (NUSSBAUM, 2012). Zaintza, oro har, eta pertsona mendekoen zaintza, bereziki, mende honen lehentasunezko gakoaren artean kokatzen da, zenbait arlotan mende hau zaintzen lanen mende moduan ezagutzen hasi baita.

Zaintza lanaz ari garenean, bereziki etxeko esparruari begiratzen diogu, jokatzeko duen papera ezinbestekoa baita gure gizarteetan, bertan jarduera



ekonomikoak egunerokotasunean ongizatea bilakatzen baitira, nahiz eta etxeak ez izan beti eremu harmoniatsuak ezta gatazkatik at dauden topalekuak. Aurretik aipatu dugun moduan, etxeak genero harreman desorekatuen eremuak ere badira, eta horregatik bertan ematen dira emakumeen kontrako ekimen bortitz ohikoenak.

Halaber, gizakion zaintza lanen zikloi begira, hauek bereziki etxeetan kokatu badira ere, eta bertan soldatarik gabeko jarduerak nagusiak badira ere, ezin dugu ahaztu, eta are gutxiago ziurgabetasuna eta aldaketak nagusi diren krisi garai honetan, ez dela soilik etxean zaintzen, etxeetatik kanpo ere zainketa lanak eskaintzen direla. Eta zaintza lan horietan bai sektore publikoa, bai enpresak (ekonomia solidarioan daudenak zein bestelakoak) parte hartzen dutela. Are gehiago, eremu ezberdinetan eskaintzen diren zaintza lanen arteko loturak oso estuak dira eta horiek ere ikusarazi eta aztertu behar ditugu. Etxeetatik kanpo eskaintzen diren zaintza lanak balioz-tatu behar dira, bereziki garai hauetan, seguruenik eremuen arteko transfere-ntziak ematen ari baitira, eta ez soilik sektore publikotik etxeetara baizik eta baita merkatu jardueretara ere.

### 3. Gaitasunen ikuspegia eta ekonomia feministaren arteko lotuneak

Gaitasunen ikuspegia (GI) xx. mendeko azken hamarkadetan garatuz joan da. Bere jaiotzaren arrazoi nagusietariko bat izan zen garapenari buruzko nazioarteko eztabaidetan ikuspegi ekonomiko-utilitaristari erantzun bat eskaintzea. Aurreko hamarkadetan, Garapenaren ekonomia sortu zenetik, nazioarteko erakunde eta agentziek uste zuten garapena modernizazio eta hazkunde ekonomikoaren sinonimoa zela. Gaitasunen ikuspegiak haratago joan nahi izan zuen herrialde askoren bilakaerak erakusten baitzuen hazkunde ekonomiko soilak ez zuela garapen ekonomikorik ekartzen.

Giza garapenaren ikuspegiaren arabera, pertsonak izan behar dute garapenaren helburua, eta ez bitartekoa soilik, eta garapen hori pertsonen aukerak zabaltzen dituen prozesutzat ulertzen du. Hau da, inportanteena baliotsua irizten dioten bizitza bat aurrera eramateko aukerak zabaltzea da. Azken hamarkadetan luze eta zabal barreiatu da, Mahbub ul Haq, Amartya Sen eta Martha Nussbaun adituek, batik bat, azaldu zutenetik.

SEN-ek gaitasunaren kontzeptua sustatzen du mundu mailako herrialdeen arteko pertsonen bizi-kalitatea neurtu eta alderatzeko tresna gisa, barne produktu gordina per kapita (BPGpc) edota baliagarritasun kontzeptuak gainditzeko asmoz. Gaitasunak, azken finean, galdera batzuei erantzunak bilatzeko tresna dira, eta galderak hauek dira, zeintzuk dira pertsona batek izan dituen aukerak bere bizitzako proiektua aurrera eramateko? Zer da pertsona bat egiteko gai? Beste era batean esanda, gaitasunak, Sen-en

iritziz, «funtsezko askatasunak» dira, hots, aukeratzeko eta jarduteko funtsezkoak diren aukera multzoa (normalean haien artean loturik daudenak). (NUSSBAUM, 2012).

Pertsona batek aukera gehiago izan ditzan, giza gaitasunak garatzea da funtsezkoa, hau da, norberak bizitza berrantolatzeke gaitasuna sustatzea, norbere ikuspuntutik gai sakonenak eta garrantzitsuenak zeintzuk diren kontuan hartuta (NUSSBAUM, 1999). Oro har, labor adierazirik, ustea da giza garapenerako gaitasun behinenak hauek direla: bizitza luze eta osasuntsua izatea; kalitateko hezkuntza jaso ahal izatea; bizi-maila duina lortzeko behar diren baliabideak eskuratu ahal izatea; eta komunitateko bizitzan parte hartu ahal izatea. Gaitasun horiek gabe, eskura dauden aukerak nabarmen mugatzen dira, eta bizitzan bide asko itxita geratzen dira. Baina giza garapenak alde handiz gainditzen du hori, eta bizi-kalitatean funtsezkoak diren beste aukerara-erlto batzuk ere kontuan hartzen ditu, hala nola giza eskubideen bermea, giza segurtasuna eta biziaren eta planetaren zaintza, besteak beste. Aukera horiek guztiak dira beharrezkoak pertsonak sortzaile eta emankor izan daitezen, beren burua errespetatu dezaten, barne-potentziala gara dezaten, eta komunitate bateko kide senti daitezen. Hitz gutxitan, giza garapena jendearen, jendearentzako eta jendeak berak gauzatutako garapena da.

Giza garapenak pertsonak beren garapenaren arkitektotzat dauzka, bai familia eta komunitate barruan, bai modu kolektiboan, eztabaida publikoetan, ekintza komunetan eta praktika demokratikoan. Ahaldundutako jendea aldaketak sortzeko gai da, dela familia- eta lan-bizitzan, dela komunitatean, dela eskala handiagoan. GI asko arduratzen da pertsonak beren etorkizuna eratzeko gaitasunaz (Amartya Senek «agentzia» deiturikoa) eta honek oso lotura estua dauka askatasunarekin. Ahaldundutzeak behar ditu bai agentzia bai laguntzazko azpiegitura instituzionalak, zeren horrela jendeak bere ahala edo boterea erabili baitezake etxean, lanean, politikan, komunitatean eta gizartean. Ahaldundutzeak badu lotura pertsonekin banakoak diren aldetik, bai eta hainbat arlotan taldeko eragileak diren aldetik ere, tokiko kooperatibetan, sindikatuetan nahiz aldaketak bultzatzen dituzten herrialde-mailako mugimendu politikoetan.

Amartya Sen-en «agentzia» kontzeptu horrek oso lotura estua du Hegoaldeko mugimendu feministek bultzaturiko ahaldundutze-estrategiarekin. Horien artean, DAWN plataformak (Development Alternatives with women for a New Era) egin zuen planteamendua nabarmentzen da. Ahaldundutzearen estrategiak mendekotasun-egiturak eraldatu nahi ditu, legeetan, jabetza-eskubideetan eta nagusitasun maskulinoari indarra ematen eta iraunarazten dioten instituzioetan erabateko aldaketak eginez. Ikuspegi horretatik, ahaldundutzea boterea norberaganatzeko prozesua da, boterea beren bizitzan gainean eragin txikia dutenek izateko eta beren burua adierazteko ahalmena edukitzea dela ulertuta.

Gaitasunen ikuspegiaren arreta, hortaz, pertsonaren aukeretan, pertsona guztien eta bakoitzaren aukeretan kokaturik dago. Pertsona bakoitza, berez, baliotsua da eta errespetua merezi du, eta helburutzat ikusi beharra dago, beste baten helburuen agentetzat edo sostengutzat ikusi ordez. Zentzu horretan, ekonomia feministarekin estu lotuta dago eta hori islatzen da emakumeen egoera aztertzerakoan. Giza garapenaren ikuspegia lantzen dutenek eta bereziki Sen-ek eta Nusbaum-ek egindako azterketetan argi geratzen da leku askotan ohikoa dela emakumei buruz ikuskera instrumental bat izatea, alegia, beste batzuen helburuetarako euskarritzat hartzea, eta ez berezko helburutzat. Horrek bultzatu zuen Amartya Sen etxeko kutxa beltza zabaltzera eta beste faktoreen artean, Nusbaum esplizituki hamar «giza gaitasun funtzional nagusi» zeuzkan zerrenda bat aurkeztera. Zerrenda hori oinarritzat har daiteke eztabaidatzeko zeintzuk diren bizitza duin baten atal funtsezkoak eta noraino emakumeek eta gizonak aukera berdinak dituzten esparru bakoitza garatzeko. Horregatik, jarraian laburbiltzen ditugu hamar atal horiek:

1. Bizitza. Iraupen normaleko giza bizitza bat bizitzeko gai izatea amaierara arte, goizegi hil gabe edo bizitza bizitzea merezi ez duen zerbait bilakatu baino lehen.
2. Gorputz-osasuna. Osasun ona izateko gai izatea, ugalketa-osasuna barne, ondo elikaturik egotea, eta etxebizitza egokia izatea.
3. Osotasun fisikoa. Toki batetik bestera askatasunez mugitzeko gai izatea eta segurtasunez bizitzea.
4. Zentzumenak, irudimena eta pentsamendua. Zentzumenak erabiltzeko, irudikatzeko, pentsatzeko eta arrazoitzeko gai izatea, eta horiek guztiak benetako giza modu batean egiteko gaitasuna izatea, hots, modu informatu eta landu batean, hezkuntza egoki bati esker.
5. Emozioak. Gu ez garen beste gauza eta pertsona batzuekin lotura afektiboak izateko gai izatea.
6. Arrazoimen praktikoa. Ongiaren kontzeptu bat osatzeko eta bizitzaren plangintzaz gogoeta kritiko bat hasteko gai izatea.
7. Afiliazioa. Beste pertsona batzuekin eta besterentzat ahalegin guztia eginez bizitzeko gai izatea eta izaki duintzat, besteen balio berbera duten izakitzat, tratatuak izateko gai izatea.
8. Beste espezie batzuk. Animaliekin, landareekin eta naturaren munduarekin interesaturik eta harremanetan bizitzeko gai izatea.
9. Jolasa. Barre egiteko, jolasteko eta aisia-jardueraz gozatzeko gai izatea.
10. Norberaren ingurunearen (politikoa eta materiala) gaineko kontrola. Politika-arloko erabakietan eraginkortasunez parte hartzeko gai izatea, jabetzak edukitzeko gai izatea.

Aurreko zerrendak inplizituki planteatzen du gaitasun bakoitzak merkatuaren apetetatik eta interes politikoetatik babestuta egon behar duela.

Horrez gain, proposamen teoriko berri batzuk azpimarratzen dute politika publikoek ez dituztela soilik gaitasunak bermatu behar, gaitasun horiek modu iraunkorrean bermatu behar direla, hau da, «gaitasunen segurtasuna» defendatzen dute (Wolff eta De-Shalit-ek egiten duten moduan, NUSSBAUM-ek aipatuak, 2012).

Laburbilduz, giza garapenaren ikuspegiak hainbat gauza ditu komunean ekonomia feministaren proposamenarekin. Izan ere, bizitzaren iraunkortasunaren alde egiten du, baita pertsonen bizi-kalitatea, eta ez merkatuak, erdigunean jartzearen alde ere dago. Pertsonak azterketen gunean jartzeak esan nahi du ekonomia konbentzionalaren ikusmolde dikotomikoa (pribatua/publikoa; ekonomikoa/ez-ekonomikoa) albo batera utzi behar dela, eta pertsonen bizitzaren ikusmolde multidimentsional bat hartu. Eta, egia bada gunean pertsonak daudela, halaberrez bizitzaren eremu guztiak aztertu behar dira, etxeetatik hasiz, eta bertan ematen den lanaren banaketa aztertuz. Horrek ere islatuko du zainketek duten garrantzia gure bizi kalitatean eta ikuspegi biek, maila ezberdinetan bada ere, jakitun dira zeregin horien garrantziaz. Horren ondorioz, besteak beste, zainketa-lanen balioa nabarmentzen dute; hain zuzen ere, mundu osoan gehienbat emakumeek egiten dituzte lan horiek oraindik ere, eta ezkutuan eta baliorik eman gabe jarraitzen dute. Azken finean proposamen bien muinean komunitate bakoitzeko emakume eta gizonezkoen aukerak (bizitza duina, aske eta autonomia aurrera eramateko aukerak) zabaltzean dago ahaztu gabe ditugun loturak eta izaki zaugarriak garelako eta horren ondorioz, babes sareak behar ditugula. Ikuspegi biek ekonomiaren izaera sozialetik abiatzen dira eta justizia sozialaren aldeko apustua egiten dute. Ezaugarri komun guzti horiek aukera handia eskaintzen dute ekonomia feministaren eta gaitasunen ikuspegiren arteko loturak ikustez gain ekonomia solidarioarekin duten puntu komunak aztertzeako, hurrengo puntuan egingo dugun moduan.

#### **4. Ekonomia Solidarioa eraikitzen Ekonomia Feministatik eta Gaitasunen Ikuspegitik**

Ekonomia beti jo izan da zientzia objektibo eta neutraltzat, horregatik, feministatzat jotzea nolabaiteko iraultza semantiko eta kontzeptuala izan da eta aipatutako zientziaren objetibotasun eta naturaltasun horiek zalantzan jarri ditu. Bide beretik jarraituz, ekonomia beti erlazionatu izan da erren-tagarritasuna, irabazia, eraginkortasuna, balio ekonomiko edo egoismo bezalako kontzeptuekin. Ondorioz, ikuspuntu konbentzional batetik, ekonomia solidario bezala sailkatzea ia oximoron bat izan liteke.

Ekonomia solidarioaren kontzeptuak gaurko gizartean ekonomiak duen rola ulertzeko modu berriak sustatzen ditu eta erreferentzia egiten

dio bai planteamendu teorikoei, bai errealitate sozioekonomiko eta instituzionalei, eta baita enpresa-praktika ezberdinei ere. Zentzu horretan, ekonomia solidarioa alderdi ezberdindun (ekonomikoak, sozialak, politikoak, kulturalak eta ingurumenekoak) fenomeno konplexua dela esan daiteke eta bizitzarako proiektu etiko bat eraiki nahi duela. (GURIDI eta MENDIGUREN, 2014)

Ekonomia Solidarioak (ES) ekonomia egiteko alternatiba praktiko eta teorikoak bilatzen ditu, solidaritatean eta lanean oinarrituak, hain zuzen ere. Honelako ekonomiaren oinarria edo muina, maila guztietako jardueretan (enpresa, merkatu, politika publiko), organizazioetan eta instituzio ekonomikoetan elkartasun gero eta gehiago sartzea da. (RAZETO, 2009)

Bai Gaitasunen Ikuspegiak (GI), bai Ekonomia Feministak (EF) eta bai Ekonomia Solidarioak (ES) pertsonak eta beraien bizi baldintzak azterketaren erdigunean jartzen dituzte. Hirurek lana lotzen dute beharrezko produkzio sozialarekin, oinarritzko beharrianekin eta espeziearen erreproduktzio hedatuarekin. Eta honela «beste ekonomia bidezkoago bat» bultzatzen ahalegintzen dira.

ES, EF eta GIren arteko loturak bilatzeko, lehenengo eta behin Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen Sareak (REAS) onartutako printzipioak irakurtzeari ekingo diogu, eta lan hau aipatutako bi teoria nagusietatik abiatuko dugu, hau da, Eftik eta GItik. Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen Sarea 1995. urtean sortu zen Ekonomia Solidarioa bultzatzeko, horrela jendarte bidezkoago eta solidarioagoa bermatuko dela uste baita. Gaur egun REASEN ehun entitatetik gora daude lurralde-sare eta sare sektorialetan banatuta. REASEtik karta solidarioaren sei printzipio nagusiekin konprometitutako ekintza enpresarial, ekonomiko eta finantzarioak koordinatu eta bultzatzen dira ([www.economiasolidaria.org/redes/reas\\_euskadi](http://www.economiasolidaria.org/redes/reas_euskadi)). Printzipioen irakurketa egin eta gero, ES-ak oinarritzko gaitasunen indartzean izan dezakeen rolari buruzko zenbait gogoeta erantsiko ditugu.

#### 4.1. *Ekonomia solidarioaren oinarrien irakurketa Ekonomia feministatik eta Gaitasunen ikuspegitik*<sup>1</sup>

**Lehenengo printzipioa ekitatearena da.** ESk defendatzen du ekonomiaren eginkizun nagusia gizakien garapen pertsonal nahiz sozialerako eta ingurumen-garapenerako oinarri materialen hornikuntza iraunkorra lortzea dela. Era berean, «ekonomia sozialaren tradizioaren esparruan, jar-

---

<sup>1</sup> JUBETO eta LARRAÑAGAREN (2014) «Ekonomia solidarioa izango da feminista bada. Ekonomia feministak ekonomia solidarioaren eraketan egindako ekarpenak» testuan oinarritzen da.

duera ekonomikoaren kudeaketan txertatu nahi ditu gizartea eta herritarren arteko harremanak arautu behar dituzten balio unibertsalak: ekitatea, justizia, Senidetasun ekonomikoa, elkartasun soziala eta demokrazia zuzena» (REAS, 2011).

Alde horretatik, ES sortzeko oinarrizko elementua da ekitatea, eta honelaxe azaltzen da REASek 2011n ekonomia solidarioaren inguruan egin-dako gutunean: «balio honek pertsona guztiak duintasun bereko subjektuak direla aitortzen du, eta haien gizarte-maila, generoa, adina, etnia, jatorria, gaitasuna... edonolakoa dela ere, menderakuntzan oinarritutako harremanen menpe ez egoteko daukaten eskubidea babesten du». Era berean, ekitatea bera berdintasunetik haratago doala uste du, desberdintasunen aitoparekin nahiz errespetuarekin lotzen baitu berdintasuna.

Feminismoaren ikuspegitik, zientzia ekonomikoaren ustezko helburua gizakiok geure biziraupenerako hornikuntza nola antolatzen dugun aztertzea izan beharko litzateke. Beraz, hornidura ekonomikoa eta bizi-tzaren sostengua aztergai nagusiak dira, eraginkor egiteko kolektibitate bakoitzak jabetutako estruktura instituzionalarekin batera, hau da, etxe, komunitate, merkatu ezberdin eta gobernuen eginkizuna. Hori dela eta, azterketa ekonomikoaren xedea, historian zehar sistema ekonomiko androzentriko ezagunetan emakumeek betidanik jasan dituzten bereizkeriak izan behar dira. Horiek horrela, EFk era askotako proposamen zabalak hartzen ditu kontuan, eta honako hauxe dute helburu: emakume eta gizonen arteko gizarte-harremanetan (zentzu zabalean) ekitatea bilatzea eta emakumeek aspaldidanik jasan behar izan dituzten bereizkeriak gainditzea. Horretarako, ordea, gaur egun munduan zehar, toki askotan nagusi diren harreman kapitalista heteropatriarkal zapaltzaileei aurre egin behar zaie.

Printzipio hau, beraz, erraz lotu daiteke gizarte bakoitzean historian zehar baztertutako zenbait taldek jasaten dituzten bereizkeriak gainditzeko prozesuarekin. Eta horixe bera da, hain zuzen ere, ESk defendatzen duena. Talde horietan funtsezkoa da jasaten dituzten zapalkuntzen eta bereizkerien arteko loturak aztertzea, eta generoa beti oso dimentsio garrantzitsua da eta lehen aipatutako beste bereizkeria askorekin gurutzatzen da. Horretarako, jardun solidarioek sistema sozio-ekonomikoan emakumeen eta gizonen nortasunak, bizi-baldintzak eta jarrerak zailtzen dituzten desberdintasunak gainjarri egiten direla kontuan hartu beharko dute.

GI dela eta, ekitatea, zenbait feministekin eztabaida sortu duen gaie-tako bat izan da. GIren justizia sozialarekiko apustua ukazina da, baina oinarrizko gaitasun batzuk pertsona guztiei bermatzeak emaitza desberdinak ekar ditzake eta bai ESk eta bai EFk desberdintasun horiek ezabatzea dute xede. Hori dela eta, oinarrizko gaitasun bakoitzean sakontzerakoan ezinbestekoa da ekitatearen printzipioa gehitzea.

*Ekonomia solidarioak nabarmentzen duen bigarren printzipioak funtsezko elementutzat jotzen du lana*, pertsonen zein komunitateen bizi-kalitatea lortzeko orduan eta herritarren, herrien nahiz estatuen arteko harreman ekonomikoak sustatzeko garaian. Lanari esker, pertsonak euren gaitasunak garatu ditzakete, eta lan horren helburua biztanleen benetako premiak estaltzea izan beharko luke. Honetan, REASEk, zaintzen esparruan egindako lana (gehienetan emakumeek egina) aldarrikatzen du nahiz eta gizartean behar bezala baloratzeke egon eta desberdin banatuta egon arren (REAS, 2011).

Lanari dagokionez, Jose Luis Coraggiok proposatutakoaren arabera (CORAGGIO, 1999), ESk «lanaren ekonomia» izeneko sistemarantz jo beharko luke, enpresa-ekonomia kapitalistarekin eta ekonomia publikoarekin batera iraun ahal izateko. Lanaren ekonomiak lana bera baliabide nagusitzat hartu beharko luke, baina ez baliabide bakartzat. Azpisistema bat izango litzateke eta honen helburua ez litzateke diru-kapitala eta kapital politikoa pilatzea, giza kapitala metatzea baizik: guztion bizitzaren ugalketa zabaldua, alegia. Ondorioz, ekonomiako sektore egituratua, antolatua eta autoeraturia izango litzateke, gizarteko kide guztien ugalketa zabaldua erdie-tsi ahal izateko. Ugalketa zabaltzen denean, ez da nahitaezkoa diru-sarrera gehiago eta ondasun material gehiago eskuratzeko aukera izatea. Bizi kalitateak hobera egin dezake honako arlo hauetan gertatutako aldaketen ondorioz: kontsumoaren kalitatea, gizarte-harremanetarako ereduak, habitata eta familia-unitateen bizitza elikatzen duen testuingurua.

Lanari buruzko azterketa funtsezko elementua izan da ekonomia feministarentzat hasiera-hasieratik. Izan ere, helburu garrantzitsuak izan dira lana eta enplegua desberdintzea eta bizitza-kaliterako inportanteak diren lan guztiak baloratzea. Aintzat hartzen ditu, beraz, teoria ekonomikoak ahaztutako zaintza lanak, batez ere familian eta komunitatean burututakoak eta ongizatea eta bizitzaren iraunkortasuna bermatzen dituztenak. Era berean, lan-merkatuan lehendik zeuden desberdintasunak ere nabarmendu ditu (bereizketa bertikala eta horizontala, kontratuen modalitateetan, jarduera-sektoreetan eta soldata-bereizkerian, besteak beste). Lehen esan dugun bezala, lanaren kontzeptuaren mugak zabaltzean ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren arteko ikuspegi dikotomiko hori ere hautsi egiten da, eta gizonak nahiz instituzioek etxeko lanetan eta zaintza lanetan izan beharreko erantzukidetasuna nahitaezkoa bihurtzen da. Erantzukidetasunean aurrera egiteko, ordea, ordutegi publikoak aldatu beharra dago eta aztertu beharko da nola bateratu daitezkeen emakumeen zein gizonen bizitza-zikloekin. Badirudi aldaketa horiek nekez lortuko direla, postkapitalismo batera abiatzen ez bagara.

Feminismotik ere badaude autoreak, adibidez Silvia Federici, ordaindutako lanaren izaera askatzailea zalantzan jartzen dutenak. Egile honek sol-

datapeko lanak emakumea askatuko zuela pentsatzea ilusio hutsa izan zela azpimarratzen du, izan ere soldatapeko lanak ez baitu inor askatu. Hala ere, enplegua autonomia ekonomikorako oinarritzkoa dela onartzen du, eta pantea ez izan arren, eta askapenerako estrategiarik onena ez bada ere, aipaturiko askapenerako estrategia bat bai izan daitekeela (FEDERICI, 2013).

Gure iritziz, ESk bere jardueren artean hartu behar du kontuan genero-desberdintasun horiek gainditzeko prozesua eta horretarako, demokratikoagoak eta berdintasunezkoagoak diren egiturak eratu behar ditu, bere printzipioetan defendatzen duen bezala.

*REASEN hirugarren printzipioa, oster, ingurumenaren iraunkortasunarena da.* Bertan, hain zuzen ere, jarduera emankor eta ekonomiko guztiek naturarekin izan beharreko harremana azpimarratzen da. Naturarekiko harremana oso ona izan behar da, neurgaitza den aberastasun nahiz osasun iturria da eta. Hori dela eta, ezinbestekoa da aztarna ekologikoa, gure jardueren ingurumen-eragina, etengabe ebaluatzea eta natura errespetatzen duen ekonomia defendatzea.

Joan den mendeko 70eko hamarkadaz geroztik, ekofeminismoa sortu zenetik batez ere, eta, ondoren, ekonomia ekologikoarekin zituen loturak aztertu zirenean, EFk nabarmentzen du bizitzaren iraunkortasunak gizakiarekin eta planetarekin daukala zerikusia eta naturaren nahiz emakumeen esplotazioak zeresan handia duela gaur egungo sistema kapitalistan.

Alde horretatik, 1970eko hamarkadan sortu ziren utopia feministak ere oso ekologikoak ziren, eta honako helburu hauei ematen zieten lehentasuna: «deszentralizazioa, hierarkikoak ez diren egiturak, demokrazia zuzena, landa-ingurunekeo biziraupen-ekonomia, teknologia leunak eta menderakuntza patriarkaletiko askatasuna». Etorkizunerako proposamen horietan, «hierarkikoak ez diren egitura politiko demokratiko zuzenak ezin litezke inoiz abian jarri, antzeko egitura ekonomikorik ez balego (deszentralizatuak, bateratuak), eta alderantziz. Horren ondorioz, Barbara Holland-Cunzen esanetan (KULETZ, 1992), «hirigunearen eta landa-ingurunearen arteko dualismoa desagertzen da, bai eta eskulanaren eta lan intelektualaren artekoa, esparru publikoaren eta pribatuaren artekoa eta ekoizpenaren eta ugalketaren artekoa ere». Ideia horiek oso lotura estua dute ez bakarrik ekofeminismoarekin, baita ESrekin, honek harreman horizontal eta demokratikoak bultzatzen dituelako eta lana baloratzen duelako ez bakarrik sortutako mozkinagatik, baita ekoizten denagatik ere (erabilera-balioagatik).

Funtsean, proposamen horiek kapitalismoa hedatzean orokortu den ikuspegiari aurre egin nahi diote, horren ondorioz gizakiek natura zeharo kontrolatu zezaketela zioen mitoa sortu zelako. Hori dela eta, natura bera beste ekoizpen-faktore bat zela hartu zuten kontuan (lurra eta bere osagaiak baliabide natural ustiagarri bihurtu ziren). Beraz, bazegoen natura



bera pribatizatzerik, merkaturatzerik eta kapitalaren interesen zerbitzura jartzerik (POLANYI, 2003). Sistema kapitalistako analista askok sistemaren epe luzerako iraunkortasuna alde batera utzi dute, euren kalkuluetan planetaren mugak eta esplotazio-jarduera kapitalistek gizaki gehienentzat dauzkaten ondorioak kontuan hartu ez dituztelako. Joera nagusia horixe bera izan da, azken hamarkadetan egin diren hainbat txosten zientifikotan aurkakoa egiaztatu bada ere eta ekonomia ekologikoak nahiz ekofeministak larregikeria horiek salatu badituzte ere.

GItik, Martha Nussbaum-en zortzigarren oinarrizko gaitasunak argi islatzen du ingurumenaren iraunkortasunarekiko kezka. Gaitasun horrek (*beste espezie batzuek*) animalia, landare eta naturarekin interesatuta eta harremanetan bizitzeko ahalmena dakar. Horrela, gizakiez gaindiko espezieekiko kezka berezia azaltzen du, eta justizia oso zabal baten beharra azpimarratzen du, aintzakotzat hartzeko ez bakarrik gizakion arteko bidezko tratua, baita animaliekikoa ere. Azken hau animalien gaitasunen ikuspegiari oinarritzen da eta honen arabera animaliek tratu duina merezi dute (RINCÓN, 2011).

*REASEN laugarren printzipioa lankidetzarena da.* ESren ustez, pertsonen eta erakundeen arteko lankidetzaren sustatu beharra dago, bidezko merkataritza-harremanak eratu nahi izanez gero. Horrela, bada, konfiantza, baterako erantzukizuna, gardentasuna eta errespetua sortu ahal izango dira.

Ekonomiaren oinarrizko arazoa zein den azaltzeko orduan (HEILBRONER, 1964), biziaren ugalketa materialarekin eta biziraupenarekin lotutako harreman sozialak antolatzean pertsonen ezarritako eta eutsitako loturen multzoaren azterketa dela esan dezakegu. Hartara, sistema ekonomikoek forma zehatza hartu dute historian zehar, giza eta gizarte harreman horiek eratu direneko egitura sozialen arabera.

Urteen joan-etorrian iraunkorra izan nahi duen edozein komunitate eta herrietako egitura ekonomikoari eusten dioten gizarte-harremanen funtsezko ezaugarrien artean, lankidetzaren balioa nabarmentzen dugu, baita gizakion artean eta gizakion nahiz natura babeslearen artean dagoen elkar-menpekotasuna ere. Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte, komunitateko kideak gara, eta, bertako familia zein gizarte arloko unitateen bidez, komunitate hori zenbait erataraz arduratzen da bizirauteko eta kalitateko bizi-modua garatzeko behar ditugun zainketez. Giza bizitzaren izaera sozial hori eta beste pertsona batzuek bizirauteko eta garatzeko duten premia ez dira industrializazioaren aurretiko gizartearen ezaugarri bereizgarria, gizarte guztientzat baizik.

Komunitatearen isolatzeak zorigaitzoko ondorioak ditu pertsonentzat. Horregatik, Adela Cortinaren hitzetan «gizakiaren sufrimendurik handiena bakardade erradikala da, ikusezintasunera, urruntasunera, bazterketarena. Ez baikara egun baten denontzat onak diren arrazoiengatik elkartutako gi-

zabanako isolatuak, baizik sustraietatik lotutako gizakiak, geure bizitza elkarrekiko ezagutzan edo ukatzean eratzen dugunak» (CORTINA, 2013).

Beste alde batetik, geurea bezalako masa-kontsumoko gizarteetan, bali handia ematen zaio norberaren autonomiari. Hala ere, ekoizpen-maila eta batez besteko errenta-maila areagotu diren neurrian, gero eta zaurgarriagoak bihurtu dira biztanleak. Izan ere, gizarte horiek osatzen dituzten gizakien arteko elkarmenpekotasuna areagotzen da, lanaren banaketa oso nabaria delako. Heilbronerek, esaterako, honako hauxe aitortu zuen xx. mendeko 60ko hamarkadan Ipar Amerikako Estatu Batuetako gizartea aztertu zuenean: zenbat eta «aberatsagoa izan nazioa, orduan eta agerikoagoa izango da bertako zenbat biztanle ez diren bakarrik eta laguntzarik gabe bizirauteko gai». Horrez gain, honako hauxe ere azpimarratu zuen: «gure oparotasuna bermatuta egongo da, pertsona-talde erraldoien lankidetzaz antolatua dagoen bitartean» (HEILBRONER, 1964). Esaldi horiek euren testuinguru historikoan aztertuz gero, AEBetako barne ekonomiari buruz hausnartu genezake, baita nazioarteko harreman ekonomikoari buruz ere. Era berean, guretzat inspirazio-iturria eta oso adierazgarriak dira, lankidetzak gizartearen biziraupenean daukan garrantziari buruz hausnartzeko garaian.

Ohiko ekonomiak, oster, lehia lehenesten du sistema ekonomiko kapitalistaren funtzionamenduaren giltzarrietakoa izango balitz bezala, gure bizitzan elkarmenpekotasunaren eta lankidetzaren garrantzia onartzetik urruti. Izan ere, bere ustetan, emaitza ekonomikoak lortzeko bide bakarra lehia da, horrela lortzen baitira mozkin handiak eta kapitalaren meta-keta. Jarduera ekonomikoen ikuspegi hegemoniko gero eta estuago horrek, apurka-apurka merkataritzako jarduera ekonomikoa isolatu du esparru politikotik nahiz bizitzaren ugalketarako oinarritzakoak diren gainerako jardueretatik. Merkatuko ekonomiaren oinarria izan arren, euren kabuz araututako merkatuen falazia abian egon dadin, ezinbestekoa izango da «gizarteak nola edo hala haren eskakizunei men egitea [...]. Merkatu-ekonomiak industriako elementu guztiak hartu behar ditu kontuan, baita eskulana, lurra eta dirua ere. Edonola ere, eskulana eta lurra gizarte osoa osatzen duten gizakiak eurak baino ez dira, baita gizarte guztietako ingurune naturala ere. Elementu horiek merkatuko mekanismoan sartzen direnean, gizartearen beraren muina merkatuko legeen menpe jartzen da» (POLANYI, 2003).

Bere kideen arteko lehiakortasuna analisi ekonomikoaren erdigunean jartzean, lankidetzaz analisietatik baztertzen ditu maximizatzearen logikan oinarrituriko irabaziak. Eta horrela biziraupenean laguntzen duten harreman sozialak gutxiesten ditu merkatutik pasatzen ez direlako eta hauen artean etxeko lanak, zaintza lanak edo komunitateko lanak aipa ditzakegu.

Lankidetzaren eta sare-lanen kulturak informazioa sozializatzea, eza-gutzak, bitartekoak, inguruak edo ondasunak partekatzea bermatzen du,

sinergiak sortzeko helburuarekin. Bai EFk eta bai ESk merkatu kapitalistaren nagusitasuna gainditzea dute helburu, erdigunean gizabanakoen elkarlana jarritz, eta horrela bizi baldintza duinak bermatuz.

**Bosgarren printzipioak jarduera solidarioa irabazi asmorik gabea izan behar dela defendatzen du.** Hori dela eta, giza eta gizarte sustapena izan behar da ekimen solidarioen xede nagusia. Beraz, irabazi asmorik gabeak izan beharko dira funtsean. Dena dela, horrek ez du esan nahi bertako zenbait jardueratan soberakinik sortu behar ez denik. Edonola ere, etekin horiek gizartera itzuliko dira zenbait jarduerari emandako babesaren bidez: proiektu sozialak, ekimen solidario berriak edo garapenerako lankidetzako programak, besteak beste. ESk eta EFk aldarrikatzen dute jarduera ekonomikoetan banakako jokabidearen printzipio bakartzat hartutako norberaren interesetik eta irabazi asmotik haratago doazen beste motibazio, zenteltasun eta asmo batzuk daudela. ESk, gainera, «behar besteko argitasuna ere badauka, aberastasunaren sorrera aberasteko prozesu pribatuaren helburuarekin ez nahasteko» (ALVAREZ, 2010).

Batzuen ustez, gizabanakoa elkarlan sozialera bultzatzen duen arrazoia irabazien bilaketa da, eta ez onginahian edo altruismoan oinarritutako Sentimendua. Nussbaum-en arabera, justizia, printzipio politiko bezala, ezin daiteke «berdinen» artean bakarrik sortzen den elkarrekikotasunaren nozioari loturik egon. Zeren eta, nola zabaldu ditzakegu justiziaren mugak adibidez, desgaitasun larriak dituzten pertsonen artean, arrazoi guztiak bakoitzaren irabazietan oinarritzen badira? Izaki sozial eta politikoak gara, eta honek derrigorrez bultzatu beharko gintuzke helburu partekatuak onartzera. Beraz, besteen ongizatea gure helburu propioetan aurkitzen dela ulertu beharko genuke.

**Seigarren printzipioak ingurunearekiko konpromisoa aldarrikatzen du,** hau da, ekimen solidarioek konprometituta egongo dira garatzen direneko ingurune sozialarekin. Hori dela eta, beste erakunde batzuekin lan egin beharko da, esperientzia solidario zehatzek eredu sozioekonomiko alternatiboaren sorrera susta dezaten. ESko jardunak zenbait testuingurutan eratu direnez, honako honexen eraginpean daude euren ezaugarriak: lurralde horietako kokapena eta oroimen historikoa; esperientzia komunitarioen, lankidetzaz-esperientzien eta auzo-esperientzien bizipenarekin, eta baita horrelako ekonomien eraketarekin ere.

Emakume ekonomialari feministek nabarmentzen dute analisiak eta aldaketa-proposamenak errealitate zehatzetara egokitu behar direla eta errealitate horiek, emakumeak eurak bezalaxe, era guztietakoak izan daitezkeela. Nolanahi ere, antolatutako emakumeen taldeen partaidetza izan duten jabekuntza ekonomikorako prozesuetan, egiaztatu ahal izan da nolako konpromisoa daukaten euren ingurunearekin eta adibidez emakumeak etengabe kezkatuta daudela euren familiaren arazoengatik. Hori dela

eta, batzuetan, emakumeek euren inguruneari emandako lehentasunari buruzko eztabaida sustatu da, euren interes estrategikoen gainetik ere jartzen dutelako esparru hori.

Nussbaum-ek proposaturiko gaitasunen ikuspegiak oinarritzko gaitasunen izaera unibertsala defendatzen du, baina ez litzateke mendebaldeko izaera edo izaera kolonizatzaileetan oinarritutako unibertsaltasuna izango, baizik eta pluralismoarekiko eta ezberdintasun kulturalarekiko sentikortasuna erakusten duen unibertsaltasuna. Horrela, gaitasun bakoitza modu konkretu batean praktikara eramango da, beti ere testuinguru sozial eta kultural ezberdinetara egokituz (DI TULLIO, 2013). Ezinbestekoa da bakoitzari egokitu zaigun errealitate zehatzetik abiatzea, eta emakume errealen errealitatetik aurrera egitea.

#### 4.2. *Ekonomia Solidarioa eta oinarritzko gaitasunen indartzea*

Jakina denez, duintasunez bizi ahal izateko beharrezkoak diren gaitasunak elkarren artean oso lotura estua dute. Hala ere, posiblea da momentu jakin batzuetan komenigarria izatea horietako batzuk lehenestea. Ingrid Robeynsek eta Cristina Carrascok, Nussbaum-en oinarritzko gaitasunetatik abiatuta, gaitasunen zerrenda beraien inguruetara egokitu dute. Geuk ere, egile ezberdinen zerrendetan oinarrituta, gure inguruan dauden desberdintasunak ikusita eta nazioarteko ongizate adierazle garrantzitsuenak aztertuta, hurrengo gaitasunen zerrenda lehenestea proposatzen dugu. Gure hurbileko ekonomia solidarioarentzako analisiak eta proposamenak egiteko orduan lagungarria izango delakoan gaude (LARRAÑAGA eta JUBETO, 2011):

- **Zaintza duinak eskuratzeko gaitasuna:** Zaintzak beharrezkoak dira guztiontzat bizitzan zehar eta erabat funtsezkoak gure bizitza kalitatetarako. Gai honi, emakumeak kaltetzeke, erantzun sozial, politiko eta kolektibo bat ematea beharrezkoa da sozialki jasangarria izango den eredu bat lortzeko. Zaintza duin batzuetarako sarbidea beste gaitasunekin oso lotuta dago, eta oso garrantzitsua da adibidez emakumeen eta gizonen arteko ekitatea lortzeko.
- **Hezkuntza eskuratzeko gaitasuna:** Guztion garapen osoarekin erlazioaturiko eskubidea izateaz gain, benetan asko eragiten du emakumezkoen, gizezkoen, familien eta kolektiboen aukera eta bizitza kalitatean. Hezkuntzak, besteak beste, oso eragin argia du osasun mailaren hobekuntzan, diru-sarreraren igoeran, familia egituren aldatketan (esate baterako ugalkortasunean eta kide ezberdinen jarduera ekonomikoan), balio demokratikoen sustapenean, bizikidetzan eta

pertsonen jarduera autonomo eta arduratsuan. Ondorioz, hezkuntzak osagai instrumental argia du beste alorren aurrerapena bermatzeko.

- **Osasuna eskuratzeko gaitasuna** osasun sexuala eta ugalketakoa barne: Bigarren hau, gai nagusia da emakume guztien bizitzan, baino bereziki gazteenetan. *Biztanleria eta garapenari buruzko El Cairoko Nazioarteko Konferentzian (CIPD)*, 1994an, eskubide sexual eta erreproduktiboak berezko helburu garrantzitsuak direla ezarri zen, egonkortasun demografikorako baliabide erabakigarriak izateaz gain.
- **Autonomia ekonomikoa lortzeko gaitasuna:** Beharrezkoa da ondasun eta zerbitzuak lortzeko eta beraz baita pertsonen ongizate materialerako ere. Autonomia ekonomikoa lortzeko ohiko bidea diru-sarrerak eskuratzea da eta hauek, gehienetan, lan merkatuan parte hartzeari esker gauzatzen dira. Hala ere, autonomia ekonomikoa diru-sarreraren autonomia baino kontzeptu zabalagoa da zerbitzu publikoak, prestazio sozialak edota kredituak eskuratzeko aukerak ere oso inportanteak direlako.
- **Parte hartze sozial, politiko eta ekonomikoa komunitatean:** Esparru honetan garrantzitsua da arreta ohikoak ez diren alorretan jartzea, besteak beste, egunerokotasunaren esferan zeren eta hauek parte hartzearen ikerketetan, maiz, alde batera utziak izan dira ez baitira espazio politikotzat hartu. Baina honek badu bere arriskua, hala nola eguneroko espazio hauek emakumeen leku naturaltzat jotzea. Erabaki politiko eta ekonomiko guneetan emakumeen parte hartzea sustatzea lehentasuna izan beharko luke. Argi dago, erabakiak hartzeko esparruetan parte kuantitatibo txikitzea, baldintza beharrezkoa izan arren, ez dela baldintza nahikoa emakumeen interesen alde egiteko. Izan ere, erabaki-guneetan emakumeak sartzeak ez du beren interesen aldeko apustu trinkoa bermatzen.
- **Biolentziarik gabe bizitzeko eskubidea:** Emakumeen aurkako biolentzia bereizkeriaren eta erlazio desberdinen muturreko adierazpena da. Biolentzia eta honen mehatxua, era askotako izan daiteke (fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, politikoa, judiziala, soziala ...) eta ia espazio guztietan ematen dira: kalean, lantokian, eskolan, jai eta aisi esparruetan, komunitatean eta, noski, etxean. Kultura ezberdinetan oso barneratuta dago eta tolerantzia sozialak eta instituzioen konplizitateak arazoa areagotu egiten dute. Emakumeen aurkako biolentziak, bere hedapena, izaera eta jatorriagatik, gainontzeko gaitasunak kaltetzen ditu, eta, ondorioz, desabantaila garratza bihurtzen dela esan genezake.

Oinarrizko gaitasunen arteko loturak asko eta konplexuak dira. Esaterako, parte hartze politikoa bultzatzeko modurik eraginkorrenetakoa heziketa sustatzea da; lana etxetik kanpo aurkitzeko gai diren emakumeek gaitasun handiagoa izango dute beren etxeetan eraso fisikoei aurre egiteko; haurtzaroan ez bagaituzte ondo zaintzen, horrek ondorio txarrak izango ditu heziketa mailan eta hau oztupo bihur daiteke enplegua aurkitzeko, diru-sarrerak lortzeko eta abarrerako.

Aukeratutako gaitasunen artean, Ekonomia solidarioaren jarduerak eragin zuzena izango dute autonomia ekonomikoan. ESK ez du besteen lanaren esplotazioa ahalbidetzen, ez esklabotza eta ezta biolentzia fiskoaren bidez lortutako dependentziarik ere eta ezta besteen lanaren produktua jasotzea ere (CORAGGIO, 2011). Jendearen beharrian ekonomikoak asetzeko lan baldintza duinak eta kalitatezko enpleguak defendatzen ditu; baita erlazio komertzial eta produktiboak era adostuan eta justuan baloratzeke moduak ere (GURIDI eta PÉREZ DE MENDIGUREN, 2014). ESK, beraz, langile guztiei enplegu duinak eskaini beharko lizkieke eta bermatu bizitza maila «ona» izateko diru-sarrera nahikoa. Beraz, gaur egun ematen ari den lan prekarietatearen prozesu gogorraren kontra borrokatu beharko luke.

ESK, era berean, parte hartzea sustatzen du, etika parte hartzaile eta demokratiko batean oinarritzen baita. Erabakietan eta arduetan parte hartzea bultzatuz pertsona eta erakundeen arteko lan kooperatiboa indartu nahi du, beti ahalik eta horizontaltasun handiena bermatuz eta bakoitzaren autonomia errespetatuz. ESK, bizitzaren esparru guztietan parte hartzeko eskubidea eta informazio argia eta nahikoa jasotzeko eskubidea defendatzen ditu, pertsona bezala axola zaizkigun alderdi guztietan parte hartu eta erabakiak hartu ahal izateko. Era berean, erakundeen barneko erabakietan parte hartzea defendatzen du, eta nola generoaren ekitatea bere printzipioetako bat den, emakume eta gizonen arteko parte hartze orekatua bermatzeko arreta berezia izan beharko luke (GURIDI eta PÉREZ DE MENDIGUREN, 2014).

ESK, aldi berean, hezkuntza gaitasuna indartzen laguntzen du, izan ere praktika onen informazioaren sozializazioa sustatzen du eta ikasteko balioko duten ezagutza, informazioa, esperientzia, eta abarren partekatzea bultzatzen du.

ESK pertsonen kalitatezko bizitza mailan oinarritutako ekonomiaren alde egiten du, eta ordaindu gabeko zaintzak kalitatezko bizitza horren gako direnez, erakunde solidarioek erraztu beharko lukete bertako langileentzat lan produktibo eta erreproduktiboen bateragarritasuna. Are gehiago, nola lan erreproduktiboen banaketa emakume eta gizonen artean oso ezberdina den eta ESK berdintasuna indartzen duela kontuan hartuta, ESK bere pertsonal maskulinoak zaintza lan ez ordainduetan erantzukizunen gehiago hartzea bultzatu beharko luke.

Ordaindutako zaintzen kasuan, ESko hainbat erakundek eskaintzen dituzte bai zaintza zerbitzu zuzenak (pertsonekiko arreta), bai zeharkakoak (etxeko lanak). Gainera, gaur egun zerbitzu publikoak murrizten ari dira eta oso nabarmenak dira atzerapausoak zaintza alorreko zerbitzu publikoetan, batez ere menpekotasunari lotutakoetan. Hori dela eta oso garrantzitsua da mahai-gaineratzea ekonomia solidarioaren zeregina zaintzetan eta baita ESren erlazioa sektore publikoarekin eta ohiko sektore pribatuarekin.

ESk gogor ekin beharko lioke genero indarkeriari eta hau lantokietan ere ematen da. ESk kultura parte hartzailea eta baloreetan emandako hezkuntza bultzatzen ditu, eta honek beren erakundeetan indarkeria ezabatzen lagundu beharko luke. Ekonomia solidarioan erlazio ekitatiboak errealitatea diren heinean, ez litzateke biolentziarik eman beharko lanpostuetan. Azkenik, lan-inguru harmoniatsuek eragin positiboa izan beharko lukete langileen osasun fisiko nahiz mentalean.

## 5. Azken hausnarketak

Eredu sistema kapitalistak merkatu-harremanak ekintza ekonomiko guztien erdigunean kokatzen ditu, eta bizitzaren iraunkortasunarekin erlazioaturiko ekintzak baztertu egiten ditu: osagai komertzialik ez dutenez hauek kontatzea oso zaila dela eta oso erraz baztertzeko modukoak direla arrazoituz (WARING, 1988, PUJOL, 1992). Horrez gain beste eredu ekonomiko batzuk jarraitzen dituztenak baztertzen ditu eta merkatu kapitalistan parte hartzeko baliabide monetario nahikorik ez duten pertsonen beharriak gutxiesten ditu. Honen aurrean, ESk sistema ekonomikoaren ikuspegi alternatibo bat planteatzen du, bere printzipio eta helburuekin. Modu berean, pentsamolde feministak, garrantzi handia ematen dio ezberdintasunen ulermenari, jakina, hauei aurre egiteko helburuarekin. Eraldaketa soziala sustatu nahi da, pertsonak ondo bizi daitezen eta berdintasunean eta bidezketasunean oinarritutako jendarteetan bizitzeko sistema ekonomikoa sustatu nahi da.

Ekonomia Feministak, Ekonomia Solidarioak eta Gaitasunen Ikuspegiak aldarrikatzen dute pertsonak, giza harremanak eta oinarritzko beharren asetzeko ekonomia erdigunean kokatzea. Horrela, aurre egin nahi zaio gizarteak eraikitako nahiari eta norbanakoen irabaziak eskuratzea helburu duen masa-kontsumoko gizarteari. Azken finean, ESk eta EFk interdependentzia, elkarrekotasunean, demokraziaren eta gardentasunaren sustapenean oinarritutako harreman ekonomikoen defentsa partekatzen dute, beti ere bere ekintzen erdigunean zuzentasuna eta lankidetzak kokatuz.

Helburu solidarioak dituzten ekimen asko existitzen dira gaur egunean, nahiz eta oraindik ez diren behar bezain bistaratuak eta behar bada oraindik

ez dauden elkarren artean ondo artikulatuak. Orain ikuspegi feminista eta solidarioa bateratu eta artikulatu behar dira: ekonomia solidario eta feministaren balioetan oinarritutako ongizate kolektiboa lehenesten duten gizarte ekintza forma berriak sustatu behar dira eta pertsonen gaitasunak zabalduz gizakien eta naturaren arteko bizitza harmonikoa garatu behar da. Honek ekitatearen praktikan, erantzukizunean, demokrazia ekonomikoan eta giza ikuspegitik aberasten gaituzten balio guztietan sakontzea eskatzen du. Gaitasunen ikuspegiaren, Ekonomia feministaren eta Ekonomia solidarioaren arteko erlazioen inguruan buruturiko hausnarketak bide honetatik doaz, eta ezinbestekoa ikusten dugu hauek bultzatzea eta ikustaraztea, horrela bidezkoagoa den mundu baten eraikuntzan aurrera egingo dugu eta.

## 6. Bibliografia

- ÁLVAREZ, Santiago (2010): «Potencialidades y desafíos de la economía solidaria», *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global* 110.
- CASTELLS, Carme (2003): «¿Quién teme a Martha NUSSBAUM?, *Seminari filosofia i gènere*.
- CORAGGIO, Jose Luis (1999): «De la economía de los sectores populares a la economía del trabajo». Ponencia preSENTada en el Seminario «Economía dos sectores populares. Entre a realidade e a utopia», CAPINA, CEADE, CERIS, CESE, y la Universidad Católica de Salvador (UCSAL), Salvador de Bahía.
- CORBEIL, Christine, DESCARRIES, Francine & Elsa GALERAN (dir.) (2002): «Actes du colloque L'économie sociale du point de vue des femmes». *Cahier du LAREPPS* n.º 02-03.
- CORTINA, Adela (2013): *¿Para qué sirve realmente la ética?*, Paidós Ibérica
- DI TULLIO, Anabella (2013): «¿Hacia una justicia sin fronteras? El enfoque de las capacidades de Martha NUSSBAUM y los límites de la justicia», *Revista Internacional de Filosofía*, n.º 58.
- FEDERICI, Silvia (2013): *Revolución en punto cero. Trabajo doméstico, revolución y luchas feministas*, Traficantes de sueños.
- FERBER, Marianne A. y Julie NELSON (ed.) (1993): *Beyond economic man. Feminist Theory and Economics*, The University of Chicago Press.
- GURIDI, Luis y PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos (2014): *La dimensión económica del Desarrollo Humano Local: La economía social y solidaria*, Hegoa.
- HEILBRONER Robert I. (1964): *La formación de la sociedad económica*, Fondo de Cultura Económica: Mexico DF.
- HOUTART, François (2006): *Sujetos políticos*, Ed. Pasado y presente, XXI.
- JUBETO, Yolanda eta LARRAÑAGA, Mertxe (2014): «Ekonomia solidarioa izango da feminista bada. Ekonomia feministak ekonomia solidarioaren eraketan egindako ekarpenak», *Bizitzaren iraunkortasuna. Ekonomia Solidario, Feminista eta Ekologikoan oinarrituz eginiko ekarpenak*, EASS/REAS.



- KULETZ, Valerie (1992): «Entrevista a Barbara Holland-Cunz», *Ecología Política*, n.º 4, pp 9-21.
- LARRAÑAGA, Mertxe eta JUBETO, Yolanda (2011): «Tokiko giza garapena eta genero berdintasuna», *Lan-koadernoak* 56, Hegoa.
- LEVESQUE BENOÎT, Joyal, André, et Omer CHOUINARD (1989): *L'autre économie : une économie alternative ?*, Québec, Presses Universitaires du Québec.
- MARTÍN, Sara (2012): «Bioética Animal. Reflexiones morales sobre los animales en la filosofía de Martha NUSSBAUM», *Revista de Bioética y Derecho*, n.º 25.
- MATTAHEI, Julia (2010): «Más allá del hombre económico: crisis económica, economía feminista y la economía solidaria». *Cayapa. Revista Venezolana de Economía Social*, vol. 10, núm. 19, enero-junio, 2010, Universidad de los Andes, Venezuela.
- NELSON, Julie, A. (1996): (1996): *Feminism, objectivity and economics*, Routledge: London and NY.
- NUSSBAUM (2007): *Las fronteras de la justicia*, Paidós.
- NUSSBAUM, Martha (2012): *Crear capacidades. Propuestas para el desarrollo humano*, Paidós.
- PARKIN, Michael (1995): *Microeconomía*, Addison-Wesley Iberoamericana.
- PHILLIPS, Anne (2009): «El feminismo y el liberalismo nuevamente: ¿tiene razón Martha NUSSBAUM?», *Debate feminista* 39.
- PNUD (2011): *Informe sobre Desarrollo Humano 2011. Sostenibilidad y Equidad: Un mejor futuro para todos*, Nueva York.
- POLANYI, Karl (2003): *La gran transformación*, Fondo de Cultura Económica.
- PUJOL, Michelle A. (1992): *Feminism and Anti-feminism in Early Economic Thought*, Edward Elgar Publishing Limited.
- RAZETO, Luis (2009): *Lecciones de economía solidaria: realidad, teoría y proyecto*, Ed. Uvirtual.net, Cátedras y Cursos
- REAS (2011): *Carta de Principios de la Economía Solidaria*, Red de Redes.
- RINCÓN, Eduardo (2011): «Algunas razones filosóficas contra el maltrato animal ¿Por qué los animales humanos deberíamos considerar moralmente a los animales no humanos?», *Polisemia* No. 1
- SEN, Amartya (1990): «Gender and cooperative conflict» in I.Tinker (ed.): *Persistent inequalities, Women and world development*. Vol. 24. N.º 5.
- WARING, Marilyn (1988): *Counting for nothing. What men value and what women are worth*. Allen & Unwin, Port Nicholson Press.